



@TX_Normalkuntza

HNBren KANPAINA: LOGO BATEN BILA

Hizkuntza Normalkuntza Batzordeak **euskarazko lan-mundua gerturatu** nahi dizue Txurdinaga LHIIko ikasle guztioi: hitzaldiak, lehiaketak... antolatzeko asmoa dugu. Baina, beste edozein **kanpainak** bezala, gureak ere **logoa** —eta, logoari loturik, **slogana**— **behar** du; eta, horretarako, zuengana —ikasleengana— jotzea pentsatu dugu...

Horrenbestez, **lehiaketa** bat antolatu dugu logoak —bakoitza bere sloganarekin batera— proposatu ditzazuen. Azaroaren 17ko 23:59 arte izango duzue parte hartzeko aukera, normalkuntza@fptxurdinaga.com helbidera **mezu bat bidalita**:

- ✓ gaian, 'Logo Lehiaketa' idatzi.
- ✓ gorputzean, informazio hau eman:
 - izen-abizenak
 - maila eta taldea (1AC2, adibidez)
- ✓ erantsi zeure ekarpena.

Irabazle bakarra egongo da, eta beraren logoa ikasturte osoan erabiliko dugu kanpainarekin lotutako edozer iragartzeko. Irabazleak saritxo bat ere jasoko du.

Animatu zaitetz!

HNBko arduradunak

Bilbon, 2017ko urriaren 19an

Oharra: Eskatutakoarekin zalantzak baldin badituzu, hona hemen gaur egungo bi logo ezagun:

